



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAI A

PRENTSARAKO OHARRA
2017/09/18

Euskal Museoko klaustroaren estalgia datorren urtearen hasierarako egongo da prest

Lorea Bilbao Euskera eta Kultura diputatu andrea Bizkaiko Batzar Nagusietara etorri da gaur, berak eskatuta, “Euskal Museoaren klaustroa estaltzeko” proiektuaren barri emoteko. Azaldu dauenez, estalgia 2018ko “urtarrilean edo otsailean” egongo da amaituta.

Alde Zaharrea dagon museoko erdiko patioa eguralditik babesteko zabaldu dan idea lehiaketara “20 proiektu” aurkeztu dira. Bilbaok azaldu dauenez, Euskal Herriko Arkitektoen Elkargoko kideek, Aldundiak, Bilboko Udalak eta “kanpoko” arkitektoek osatutako epaimahaiak, “inbasiboa ez dan” proposamena aukeratu dabe. Soluzino horrek, beste gauza batzuen artean “Mikeldiko idoloa” babestuko dau. Diputatu andreak baieztu dauenez, hurrengo pausua, “hilebete eta erdian” plegu teknikoak argitaratzea izango da, geroago proposamen irabazlean jasoten dan estalgia eregiteko eta instaletako.

Bizkaiko Batzarretako Euskera eta Kultura batzordean Euskal Museoaren estalgiaren inguruan dagozan desadostasunak azaldu dira barriro be. EH Bilduk kritikau egin dau idea, bere eretziz oso esku-hartze “indartsua dalako, babes berezia daukan eraikinaren balioen kontrakoa”, hain zuzen be. David Lopategi batzordekideak, “ondarearen kontrako delitu posiblearengaitik” epaitegi batean aurkeztu dan salaketaren inguruan galdetu deutso diputatuari.

“Modu ofizialean”, Aldundiak ez dau salaketa horren “ezelango jakinarazpenik” jaso, Bilbaok adierazo dauenez, eta, dana dala, diputatuak Museoaren patronatuak hartu dauen erabagia defendidu dau, estalgia eregiteko zergaitiak “ez diralako aldatu”. Foru erakundea “trankil” agertu da, proiektua Arkitektoen Elkargoaren “eskutik joan dalako”.

GUGGENHEIM-EKO BOLUNTARIOAK

Podemos Bizkaiak eskatu dauen beste agerraldi batean, Euskera eta Kultura diputatu andreak Bilboko Guggenheim museoko “29 boluntarioen” beharra defendidu dau. Boluntarioak “32 eta 80 urte artekoak” dira. Bere esku hartzean ezeztu egin dau pertsona horreek –horreetatik “%86” andrazkoak– beharginen beharrak “egiten” dituenik, Elsa Pamparacuatro talde moreko ordezkariak iradoki dauen moduan.

Podemos Bizkaiak adierazo dauenez, “behar bada” Aldundiak “barriro planteau beharko leuke” boluntarioek egiten daben beharra, horreen egitekoak ordaindutako beharginek egin ahal daiezan, eta gehiago oraindino igaz “20 pertsonak” Bilboko museoan egiten eben beharra galdutako ebela kontuan izanda, Bilboko kultur gune horretako kanpoko beharginen berregituraketaren ondorioz.

Boluntarioek egiten daben beharra eskertu eta gero, Bilbaok adierazo dau Guggenheim museoa 2000. urtetik ari dala laguntzako figura hori erabilten, “Kultur arloko boluntariotzaren 18/98 Euskal Legeagaz” bat etorrita. Podemos taldea kritikau egin dau, talde horren beharra zalantzan jarteagaitik, bere esanetan “laguntza puntualeko egitekoak” baino ez ditualako gauzatzen, eta horrek ez dauelako “ezelango aurrezpenik” eragiten museorako. Boluntarioaren beharra, euskal



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

kulturan sustraituta dagon “auzolanean” oinarritzen da, behar hori egiten dauenaren “aberastasun eta garapen pertsonala dakarren” ezelango interesik bako egiteko soziala, Bilbaoren esanetan.

BULTZADEA ITSAS-ARZGINTZARI

Saio berean, Euskera eta Kultura batzordeak aho batez onetsi dau Talde Mistoaren arauz besteko proposamena, agindua emoteko Eusko Jaurlaritzari, “Euskadiko itsas-arozgintzako teknikak Kultur Intereseko Ondare izendatzeko aukerea aztertu eta sustatu daian”.

Itsas-arozgintza “gure historiaren parte” da. “Garrantzitsua” da Bizkaian legezko babes egotea, beste Autonomia Erkidego batzuek egin daben moduan, ondare hori “berreskuratu eta bultzatu” ahal izateko. Hori da “hoberena” itsas eraikuntzako modu hori “hemendik 30 urtera berreskuratzeko”, Arturo Aldecoak azaldu dauenez.

Talde Mistoaren ordezkari bakarraren ekimenak Euzko Abertzaleak taldearen, Euskal Sozialistak taldearen eta Bizkaiko Talde Popularraren aldeko eretxia jaso dau.

Proposamena eztabaidatu aurretik EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek saioa iztea erabagi dabe, barikuan egindako Iraskunde, Gobernamentu Onerako eta Gardentasunerako Batzordean izandako gertakaria salatzeke. Talde Mistoaren ordezkariak defendidu dituan bi puntuetan batzordeetako aretotik joatea erabagi dabe, talde horreen eretxiz, Aldecoak Meritxell Elgezabal batzordekideagaz erakutsi eban jarrera “matxistea” salatzeke.

GARRAIO BATZORDEA

Euskera eta Kulturako batzordearen saioaren ostean, Batzar Nagusiek normaltasunez egin dabe Garraio, Mugikortasun eta Lurraldearen Kohesinorako Batzordearen saioa. Bertan aho batez onetsi da Podemos Bizkaia taldearen arauz besteko proposamen bat, Aldundiak, asteburuetan 3129 linean (Santurtzi- Gurutzeta- Lutxana) laugarren autobus bat ezarteko azterlana egin daian.

Elsa Pamparacuatro Podemos taldeko batzordekideak azaldu dauenez, bere ekimenak Bizkaibuseko eskaria jasoten dau. Eskari hori Batzarretako taldeei helduarazo jaken Eskaerretarako eta Herritarrakazko Hartu-Emonetarako Batzorde batean. Batzorde horretan gidaritzako beharginek azaldu ebenez “oso gaitza da” ibilpidearen “45 minutuetan” ibilpide horretan dagozan hogeita hamar geraleku inguruak egitea. Denpora horrek “arriskuak eragin daikez erabiltzaileentzat, eta baita beharginentzat be, atsedeen faltarengaitik”.

Beste alde batetik, taldea moreak ez ditu behar besteko boto lortu arauz besteko beste ekimen bi aurrera aterateko. Proposamen horreetan eskaria egiten zan Bizkaibusen zerbitzua hobetzeko Urdaibaiko eskumaldeko herrietan (Kortezubi, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu eta Elantxobe) eta Bilbo eta Zamudioko Parke Teknologikoa lotzen dituan A3250 linean. Jeltzaleek eta sozialistek datuak erabilia erakutsi dabenez, kasu bietan zerbitzua “bat dator” dagon garraio eskariagaz.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
18/09/2017

La cubierta del claustro del Euskal Museoa estará lista a principios del próximo año

La diputada foral de Euskera y Cultura, Lorea Bilbao, ha comparecido hoy en las Juntas Generales de Bizkaia, a petición propia, para dar cuenta del proyecto de cubierta del claustro del Euskal Museoa. Según ella, el techo estará finalizado “en enero o febrero” de 2018.

Al concurso de ideas abierto para proteger de las inclemencias del tiempo el patio central del museo ubicado en el Casco Viejo, se han presentado “20 proyectos”. Bilbao ha explicado que el jurado, compuesto por miembros del Colegio de Arquitectos Vasco-Navarro, la Diputación, el Ayuntamiento de Bilbao y arquitectos “externos”, ha elegido una propuesta “no invasiva” que sirva, entre otras cosas, para dar cobijo al “ídolo de Mikeldi”. La diputada ha confirmado que el siguiente paso será la publicación “en mes y medio” de los pliegos técnicos que permitan, a posteriori, construir e instalar la cubierta que se recoge en la propuesta ganadora.

En la comisión de Euskera y Cultura del parlamento vizcaíno, se han reproducido las discrepancias que giran en torno al proyecto de techumbre del Museo Vasco. EH Bildu ha criticado la idea nuevamente por considerarla una intervención “muy fuerte, contraria a los valores de un edificio que cuenta con una protección especial”. El apoderado David Lopategi ha preguntado a la diputada por la denuncia presentada en un juzgado “por posible delito contra el patrimonio”.

“Oficialmente” la Diputación no ha recibido “ninguna notificación” de dicha denuncia, según ha manifestado Bilbao, quien ha defendido, en cualquier caso, la decisión adoptada por el patronato del museo, porque los argumentos para construir la cubierta “no han cambiado”. La institución foral se ha mostrado “tranquila”, ya que el proyecto “ha ido de la mano” del Colegio de Arquitectos.

VOLUNTARIADO DEL GUGGENHEIM

En la sustanciación de otra comparecencia, en este caso solicitada por Podemos Bizkaia, la diputada de Euskera y Cultura ha defendido la labor de los “29 voluntarios y voluntarias” del museo Guggenheim de Bilbao, de edades comprendidas “entre los 32 y 80 años”. En su intervención, ha negado que estas personas –el “86% mujeres- “suplanten” las labores de los trabajadores, como ha insinuado la representante de la formación morada Elsa Pamparacuatro.

Podemos Bizkaia ha señalado que “quizás” la Diputación debiera “replantearse” la labor del voluntariado para que sus funciones pasen a realizarse por personal remunerado, más si cabe cuando “20 personas” perdieron su trabajo en la pinacoteca bilbaína el año pasado como consecuencia de la reestructuración del personal externo del centro cultural bilbaíno.

Después de agradecer el papel del voluntariado, Bilbao ha afirmado que el museo Guggenheim lleva desde el año 2000 incluyendo esta figura colaborativa conforme a la “Ley Vasca 18/98 de voluntariado cultural”. Ha criticado a Podemos que ponga en cuestión la labor de este colectivo



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

que, a su juicio, realiza “meras labores de apoyo puntuales” que “no suponen un ahorro” para el museo. La labor del voluntariado se enzarza en la cultura vasca que supone el “auzolan”, una labor social desinteresada que “supone un enriquecimiento y desarrollo personal” de quien lo practica, según Bilbao.

IMPULSO A LA CARPINTERÍA DE RIBERA

En la misma sesión, la comisión de Euskera y Cultura ha aprobado por unanimidad de todos los grupos presentes en la sesión, una proposición no de norma del grupo Mixto para que se inste al Gobierno Vasco “a estudiar y promover la declaración como Bien de Interés Cultural de las técnicas constructivas de la carpintería de ribera en el País Vasco”.

La carpintería de ribera es “parte de nuestra historia”. Al igual que han hecho otras comunidades autónomas, es “importante” que haya en Bizkaia una protección legal que permita “su recuperación e impulso”. Es “lo mejor” para que esta forma de construcción naval se muestre “en franca recuperación de aquí a 30 años”, ha sostenido Arturo Aldecoa.

La iniciativa del único representante del grupo Mixto ha sido apoyada por los grupos junteros Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Popular Vizcaíno.

EH Bildu y Podemos Bizkaia han decidido, antes de debatirse la proposición, ausentarse de la sesión para denunciar un incidente ocurrido en la comisión Institucional, Buen Gobierno y Transparencia celebrada ayer. Han abandonado la sala de comisiones durante los dos puntos que defendía el representante del grupo Mixto por la actitud “machista”, que según estos grupos, mantuvo Aldecoa ante la juntera Meritxell Elgezabal.

COMISIÓN DE TRANSPORTES

Tras la sesión de Euskera y Cultura, las Juntas Generales han celebrado con normalidad una nueva sesión de la comisión de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio en la que se ha aprobado por unanimidad una proposición no de norma de Podemos Bizkaia para que la Diputación estudie la incorporación de “un cuarto autobús” los fines de semana en la línea 3129 (Santurtzi-Gurutzeta/Cruces-Lutzana).

La apoderada de Podemos Elsa Pamparacuatro ha explicado que su iniciativa recoge una demanda de los trabajadores de Bizkaibus que fue comunicada a los grupos junteros en una comisión de Peticiones y Relaciones con la Ciudadanía. En ella, el personal de conducción esgrimía “serias dificultades” para cumplir “en 45 minutos” de recorrido la treintena de paradas existentes. Dicho tiempo puede provocar “riesgos para usuarios y usuarias, y riesgos para la salud de los trabajadores por la falta de descanso”.

Por otro lado, la formación morada no ha conseguido los apoyos suficientes para llevar adelante otras dos iniciativas no de norma en las que demandaba mejorar el servicio de Bizkaibus en la margen derecha de Urdaibai (Kortezubi, Gautegiz-Arteaga, Ibarrangelu y Elantxobe) y en la línea A3250 que une Bilbao con el Parque Tecnológico de Zamudio. Jeltzales y socialistas han mostrado con datos que el servicio en ambos casos es “adecuado” a la demanda de transporte existente.